

Euskararen Nazioarteko Eguna 2026

Ni, Euskara naiz. Agian oraindik ez nauzu ezagutzen. Agian nire izena entzun duzu, baina oraindik ez dakizu zer esan nahi dudan zuretzat. Agian gaur iritsi zara; agian duela hamar urte. Edo hemen jaio zara, eta inoiz ez duzu pentsatu zer esan nahi duen hemengo hizkuntzan bizitzeak. Baina nik zu ezagutzen zaitut. Badakit zer den leku batera iritsi eta dena berria izatea: kaleen izenak, eskola egunak, lantokiko aginduak, dendako hitzak, etxeen isiltasunak. Badakit zer den zerbait ulertu nahi eta ezin ulertzea; badakit zer den barruan hitz asko edukitzea eta kanporatzeko, bat bera ere ez aurkitzea.

Horregatik, gaur ez dut nire ahotsarekin bakarrik hitz egin nahi. Zuen hizkuntzek ere badute zer esana, eta nik entzun nahi ditut. Zuek ekarri dituzuen hizkuntzak ez dira iraganeko oroitzapen hutsak: zuen izenak, zuen familiak, zuen haurtzaroak, zuen ohiturak eta zuen mundua begiratzeko moduak bizi dira haien barruan. Horregatik, nire etxean tokia egin nahi diet.

Arabierak hitz bat ekarri dit: **Intimā'**. Tokikotasuna. Norbaitekin edo zerbaitekin lotuta egotearen sentimendua. Eta hitz horrek gogorarazi dit hizkuntza bat ez dela komunikatzeko tresna hutsa. Hizkuntza batek norbaiti esan diezaioke: zu ere hemengoa zara.

Darijak, bestalde, **Marḥba bik** esan dit: ongi etorri. Ez harrera hotz hutsa, baizik eta etorri zarelako poza. Eta **dar** hitzak etxea ekarri dit gogora: ez hormak soilik, baizik eta mahaiaren inguruan norbaiti lekua egitea; etxean zaren bezala, zure izenak beste baten ahoan leku propio bihurtzea. Horregatik, nik ere esan nahi dizuet: utz ditzagun gure etxeak elkarren artean irekita.

Ingelerak, **home** hitzarekin irekiko dizkigu etxeko ateak, etxetik haratago doan etxea.

Quechuak **Ayllu** hitza ahoskatu dit. Familia baino gehiago, komunitatea baino gehiago; elkarrekin bizi, lan egin, ospatu eta zaintzen dugun komunitatea. Hitz horrek gogorarazten dit nor izatea ez dela norberaren baitan bakarrik gertatzen. Komunitatea, elkarri lekua egitearen ondorioz sortzen den zerbait da. Horregatik nire plaza, kale, auzo eta herrien irudiak datozkit gogora: elkar ezagutu aurretik, elkarri tokia egiten dioten pertsonena.

Txinerak **Yuánfèn** hitza iradoki dit: elkar aurkitzen duten pertsonen arteko lotura, bideak gurutzatu izanaren zentzua. Batzuetan, hizkuntza batek ez gaitu soilik ulertzen laguntzen; elkartu ere egiten gaitu.

Gaztelaniak **sobremesa** luzatu dit: mahaitik altxatzeko presarik ez duen denbora; hitzak bazkalostean luzatzen diren unea, elkarrekin egoteko beste modu bat.

Guaraniek bezala, hitz zabal bezain sakon bat dakarte: **Ñande**: "GU". Ordea, gu horretan zu ere bazaude; gu, zu eta ni. Hori da ikusten dudan "gu" hori: inor kanpoan uzten ez duen plurala, norberaren hizkuntza edo jatorria galdu behar ez duen plurala, parte izateko zerbait utzi beharrean zerbait partekatu dezakeena.

Frantsesak **partage** xuxurlatu dit: partekatzea. Norberarena besteari eskaintzea, eta bestearena jasotzea. Hizkuntza bat ere horixe baita: eman eta jaso, esan eta entzun.

Agian hizkuntza bat, funtsean, hori guztia da. Elkar aurkitzeko modu bat. Geratzeko modu bat. Partekatzeko modu bat. Hizkuntzak ez direlako komunikatzeko tresnak soilik. Gurutzatzen diren bideak dira, elkartzeko mahaiak eta bestea sartu ahal izateko irekitzen ditugun espazioak. Eta agian horregatik ikasten dugun hizkuntza bakoitzak, zaintzen dugun hizkuntza bakoitzak eta bizirik mantentzea lortzen dugun hizkuntza bakoitzak, partekatu dezakegun mundua zabaltzen du pixka bat.

Horregatik, ez dut nahi zuen amaren ahotsa nire ahotsean desagertzea, ezta gure amarena zuenean desagertzea ere. Ez dut nahi zuen aitak bere haurtzaroa nire hitzekin bakarrik kontatzea. Ez dut nahi zuen etxeko lehen hitza galdu dezazuen nire hizkuntza ikasteko. Ez. Nik beste zerbait nahi dut: zuen hitzak nirekin gurutzatzea, zuen izenak nire esaldietan agertzea, zuen barre egiteko moduak nire barre egiteko moduekin partekatzea. Ez gara elkarren ordezkoak; ez gara bi etxe elkarren aurka; ez gara bi komunitate banatuta. Norberak berea mantenduz elkar osatzen ditugun ahotsak gara.

Euskara ikastea ez baita hitz batzuk ikastea bakarrik. Beste norbaiten munduan sartzen ikastea da, eta mundu horretan, norberarentzat ere bazegoen lekua aurkitzea.

Eta egunen batean, "hemen nago" esatetik "hemen ere bizi naiz" esatera igaroko zara. Orduan, ez duzu euskara bakarrik edukiko, euskarak zu ere edukiko zaitu; zure istorioetan, zure seme-alaben ahotsean, zure lagunen artean, zure auzoan, zure etxean. Eta guk ere, zuenetik ikasiko dugu, zuen istorioetatik, zuen oroitzapenetatik eta zuen hizkuntzetatik.

Ni Euskara naiz. Eta nire etxeko ateak irekita daude datozenentzako. Nire etxea orduan hasten da handitzen. Sartu. Hemen ere baduzu lekua. Ekarri zure ahotsa, zure izena, zure memoria eta zure mundua, eta jaso gure hizkuntza, gure izena, gure memoria eta gure mundua. Ni ere eduki nazazun eskatzen dizut, zure mundutik, zure begiradatik. Agian, poliki-poliki, zure ahoan beste esaldi bat jaioko da:" Hemen bizi naiz, euskaraz". Eta nik erantzungo dizut: "Bai. Hemen zaude. Eta zu ere nire etxea zara."

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
araba álava foru aldundia diputación foral
Bizkaia foru aldundia diputación foral
GIPUZKOA Foru Aldundia · Diputación Foral
EUDEL EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS
UeMA UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA



Día Internacional del Euskera 2026

Yo soy Euskera. Quizás aún no me conozcas. Quizás has oído mi nombre, pero todavía no sabes qué puedo significar para ti. Quizás llegaste hoy; quizás hace ya diez años. O tal vez naciste aquí y jamás te detuviste a pensar qué significa habitar la vida en la lengua de esta tierra.

Pero yo sí te conozco. Sé bien lo que es llegar a un lugar y sentir que todo es nuevo: los nombres de las calles, las clases en la escuela, las órdenes en el trabajo, las palabras en las tiendas, el silencio habitado de las casas. Sé lo que es querer comprender y no poder; sé lo que se siente al tener un universo de palabras dentro y no encontrar una sola que pueda salir.

Por eso, hoy no quiero hablar sólo con mi voz. Vuestras lenguas también tienen mucho que decir, y yo deseo escucharlas. Las lenguas que habéis traído no son meros recuerdos del pasado: en su interior viven vuestros nombres, vuestras familias, vuestra infancia, vuestras costumbres y vuestra manera única de entender el mundo. Por eso quiero hacerles un espacio en mi casa.

El árabe me ha regalado una palabra: **Intimā'**. Pertenencia. El sentimiento de estar entrelazado a alguien o a algo. Y esa palabra me recuerda que una lengua jamás es un simple instrumento para comunicar. Una lengua puede abrazar a alguien y decirle: tú también eres de aquí.

El dariya, por su parte, me ha dicho **Marḥba bik**: bienvenido. No como un frío gesto de cortesía, sino como el gozo puro de tu llegada. Y en su voz, la palabra **Dar** me ha traído el eco del hogar: no solo los muros, sino el acto de ofrecerle, a alguien, espacio alrededor de la mesa; sentirse en casa es ver cómo tu nombre cobra un lugar propio en labios ajenos. Por eso os digo: dejemos nuestras casas abiertas de par en par, unas a otras.

El inglés nos abrirá sus puertas diciendo **home**: esa casa que significa más que una casa.

El quechua me ha traído **Ayllu**. Más que una familia, más que una comunidad: seres entretejidos que viven, trabajan, celebran y se cuidan. Es una palabra que me recuerda que la existencia de una persona jamás ocurre en la soledad de esa persona; la comunidad es aquello que nace cuando nos hacemos hueco mutuamente. Por eso acuden a mí las imágenes de mis plazas, mis calles, mis barrios y mis pueblos: personas que, aun antes de conocerse, ya se ofrecen ese espacio.

El chino me ha regalado una palabra: **yuánfèn**. Una palabra difícil de traducir, pero hermosa de sentir: ese vínculo entre las personas cuyos caminos llegan a cruzarse, esa extraña certeza de habernos encontrado.

Porque, a veces, una lengua no solo sirve para entendernos. También sirve para encontrarnos.

El español me ha regalado otra palabra: **sobremesa**. Ese tiempo que se resiste a terminar cuando la comida ya ha terminado. Ese momento en que nadie tiene prisa por levantarse, porque todavía quedan palabras, historias y silencios compartidos.
La sobremesa nos recuerda que hablar también es una forma de quedarse. De estar juntos un poco más.

Como los guaraníes, traen una palabra tan amplia como profunda: **ñande**: "NOSOTROS". En cambio, en ese nosotros estás tú también; nosotros, tú y yo. Ese es el "nosotros" que veo: un plural que no deja a nadie fuera, un plural que no tiene que perder la lengua o el origen de uno mismo, que puede compartir algo en lugar de dejar algo para ser parte.

Y el francés me ha susurrado: **partage**. Compartir. Dar algo de nosotros y recibir algo del otro. Decir y escuchar. Ofrecer nuestra palabra y hacer sitio a la palabra ajena.

Quizá una lengua sea, en el fondo, todo eso.

Una manera de encontrarnos. Una manera de quedarnos. Una manera de compartir.

Porque las lenguas no son solamente herramientas para comunicarnos.

Son caminos que se cruzan, mesas en las que juntarse y espacios que abrimos para que el otro pueda entrar.

Y quizá por eso cada lengua que aprendemos, cada lengua que cuidamos y cada lengua que conseguimos mantener viva, ensancha un poco el mundo que podemos compartir.

Por todo esto, no quiero que la voz de vuestra madre se apague en la mía, ni que la de la mía se desvanezca en la vuestra. No quiero que vuestro padre narre su infancia únicamente con mis palabras. No quiero que perdáis la primera palabra pronunciada en vuestra casa para aprender mi lengua. No. Yo anhelo algo distinto: que vuestras palabras se crucen con las mías, que vuestros nombres habiten mis frases, que vuestra risa se entrelace con mi forma de reír. No somos sustitutas las unas de las otras; no somos dos casas enfrentadas ni dos comunidades divididas. Somos voces que, conservando su esencia, se completan mutuamente.

Por eso, aprender euskera no es solo memorizar palabras. Es aprender a adentrarse en el mundo de alguien más y descubrir, maravillado, que en ese mundo también había un sitio guardado para ti.

Y algún día, la frase "aquí estoy" se transformará suavemente en "aquí también habito". Entonces, no solo tendrás el euskera contigo: el euskera también te tendrá a ti; habitando en tus historias, en la voz de tus hijos, entre tus amigos, en tu barrio, en tu hogar. Y nosotras también aprenderemos de vosotras, de vuestras vivencias, de vuestros recuerdos y de vuestras lenguas.

Yo soy Euskera. Y las puertas de mi casa están abiertas para quienes llegan. Solo entonces mi casa empieza a ensancharse. Entra. Aquí también tienes tu lugar. Trae tu voz, tu nombre, tu memoria y tu mundo, y recibe a cambio nuestra lengua, nuestro nombre, nuestra memoria y nuestro mundo. Te pido que me acojas también a mí, desde tu propia mirada, desde tu propio universo.

Y quizás, despacio, muy despacio, nazca en tus labios una nueva certeza: "Aquí habito, en euskera".

Y yo te responderé: "Sí. Aquí estás. Y tú también eres mi hogar."

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO · araba álava foru aldundia diputación foral · Bizkaia foru aldundia diputación foral · GIPUZKOA Foru Aldundia · Diputación Foral · EUDEL EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS · UEMA UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA